

Joxepa Peñagarikano Romaratezabala
Beasain, Gipuzkoa
(1937-2023)

Aurkibidea

Biografia



Lupazketa baserrian jaio zen 1937an. Umea zela, baserria erre zitzaien eta inguruko baserritarren laguntzari esker berria jasotzea lortu zuten. 10 urterekin eskola amaitu eta neskame joan behar izan zuen Zeraingo baserri batera. Han egon zen bitartean, Segurako mojen eskolara joaten zen. Ume-umetatik gogor jardun zuen baserrian lanean eta etnografia gaiez oso azalpen interesgarriak eman zizkigun.

Zintak

BEA-027

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-10-27
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-028

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-10-27
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Umetako lanak

- **Erref:** BEA-027/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserriko bizimodua umetan; egin behar izaten zituzten lanak. Auzolanean zumea ebaki; abereei azpiak egin; pinu sartzen; otea batzen; etab.

Transkripzioa

- Ta garai batean, zu umea ziñenean eta, basarrian ze lan egiten zenituzten umetan edo...?

- Umetan ze lan?

- Bai.

- Bueno, ez iazu aittau ze lan. Handik etxeik etxe izaten zan orduun zume asko ta zumea ebaitzen jaio orduko auzolanen. Eta gero etxen´e bateko azpik etatzea zala, besteko piñu-sartzen´e bai saio eerrak. Elurre goien beheran ta ebie, txingorra ta piñu-sartzen aittuta nao ni. Jendek negar eitten zola´re bai, e, aittuta nao ni piñu-sartzen. Holako plemoia ta “Ezin naiz jun. Ez naiz gauza ta ezin naiz jun” ta zeak aitteordekook “Jun beharra zeon!” ta juten ez baziñen eman eitten zizun zapindue ta jun ein behar. Ta ni jendea ne(g)ar eiñez hola aittuta nao piñu-sartzen plemoiakin ta. Jende danak: “Baiño kazkabarra ai dola arpegi horrekin! Hilko zea!”, “Hiltzen banaiz, hobe”. Hola ibiltzea baiño hobe esaten nien nik jendei. Gaizki. Ta harrezkeo´re, pentsa zazu, bata dala, bestea dala... eske egun bat onik ez. Oain gaizki naola esaten doe “Bai, zu ibili zean bezela ibili ezkeo gaizki egon behar” esaten doe batzuk. Batzuk konprenitzen doe, beste batzuk ez. Oain nola... lehengo situazioa nik nerea, batzuk konprenitzen doe, besteek

ez doe konprenitzen.

- Abere-zain eta egoten ziñen?

- Hantxe gutxiña. Ni han ibiltzea baiño nahio non lanen ibiltzea. Eske ni ika(r)au eitten nitzen ganauk alde ingo... galdu ingo zitela aberek. Ta ni lanea o atxurrea o hau eittea o hua eittea azpik etatzea o ota etatzea. Lehen´e simaurre eitten zan oteekin. Bestela azpigarrrik ez zeola ta holako otak, holako eskue baiño haundiagoko otak ataa , ekarri, hue txikitu ta harekin simaurre eitten zan sorotako. Ez zan oain bezela abonoik botatzeko diruik izaten. Oain ez ta ordun´e ez. Orduun gutxigo. Ta otea etatzen ta... bueno!

- Eta otea nundik ekartzen zendun?

- Mendiin eoten zan!

- Bertan,etxe ingurun edo...?

- Igual kilometro bat [bidera] jun ta atea ta gurdin ekarri ta jarri ta hua dana txikitu. Geo, piñu-landarea ein etxen ta haik aldatu. Ma(k)iña bat piñu aldau gendun hor gure basarrin, jaiotetxen. Oain danak botaik duzke baiño... Txiki-txikittatik amargauta, jaio orduko.

2. Otea, abereen azpia egiteko

- **Erref:** BEA-027/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Otearen inguruko azalpenak. Abereen azpiak egiteko erabiltzen zuten otea. Jai egunetan ukuilutik simaurra ateratzen zuten. Abereak nola zaintzen eta hazten ziren.

Transkripzioa

- Eta, orduan, otea esaten duzu aizkorarekin?

- Bai. Haundiñak aizkorekin, bestela atxurrekin. Dana garbittu ipurdie ta ipurdittik, lurren azpittik ebaki ta gero hua etxea ekarri ta hura txiki-txiki ein ta simaurra eitteko ikuillun. Zeatio oain azpik eunero ataatzen die, baiño ordun ataatzen zien, normalen, zortzi eunetik zortzi eunea, astebeteta. Gureen problema eoten zan jaietan elizaa etorri, elizati etxera jun, gosalduta ta azpik etaa... aste guztiko azpik etatzea. Igual sei-zazpi jornada azpik ataa gurdie hartuta irik lotuta ta segi!

- Eta metatu egiten zen otea edo...?

- Ez. Otea ekarri ta montoian jarri.

- Ekarri, txiki-txiki ein ta...

- Txikitu, montoian jarri, txikitu ta azpie eitteko... Geo gaiñea iñaurkin pixkat bota hari eta simaurre eitteko. Ganauk nola astebeteten eoten zien ikuillun, ikuillun ez zan eoten oain bezela hormigoiik eta zeak ta holako zuloa eoten zan ta zulo hura bete eta han azpie atatzan zanen astebeteko simaurrek. Gure baserrin ezautu dittut nik.

- Lehen ganaua ukuilluan egoten zen? Kanpora ez zen ateratzen?

- Larreen. Lehen ganadue larreen. Lehen ez ziten ikuillun... Bai, nundik? Oain bezela pentsue ez ziten ematen, e? Txahalak errepen, kalea jun... mataderia eaman arte. Behin baiño gehiotan eaman giñuzen errapetik

kendu gaur, gaur illuntzen esnea eman ta bihar goizen txahala matadeia. Handi Beasaiña mendiik mendi aber zenek... Oain kamionakin eamaten die, baiño handik Beasaiña... Haik hartu ta ibili ta... bueno! Desastre!

3. Baserriaren egitura; sukaldea, ukuilua, logelak

- **Erref:** BEA-027/010
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Baserriaren egitura. Sukaldea nolakoa zen: beheko sua; eta abar. Ukuilua nolakoa zen. Logelak, koltxoak.

Transkripzioa

- Eta baserria zelakoa zen? Sukaldea eta beheko sua edo...
- Beheko sue. Han ez dao oaindio txapaik, e? Ekonomikaik ez dao han. Beheko sue.
- Eta beheko sua zuk nun ezautu zenun, bazter batean edo erdian?
- Eskiñan. Ez, eskiña baten, baztarren. Baztarren, etxen baztarren.
- Tximiniarekin edo...?
- Tximinikin.
- Hitztuna 2: Hau bezela, o hola, [...] baztartxo...
- Frigorifikoa daon bezelaxe pareta kantoian, kantoie itten don pareten dao sue han oaindio. Ba, hala zan. Ni aspaldi ez naiz jun, e? Gero ya, ba, beheko sue ta butano, baiño han txapaik ez do iñok ezautu.
- Hitztuna 2: Han ekonomika...
- Ez, ekonomikaik ez du iñok ezautu.
- Eta, orduan, sukaldean eta, ba, ez dakit, baba-lapikoak eta...
- Beheko suun! Parrillan. Neskamea esaten zien burnizko katxarro txintxilika ta han jarrita o bestela beheran, brasea ein ta brasen ondon egosi [...] babarrunak-eta egosita. Beheko suun. Bestela neskamea esaten zioen katxarro bat izaten zan, hola, ba, butanon katxarro hoitako bat kirtenakin. Hura gelatza esaten zioen gero goien txintxilika [egoten] zana. Txintxilika jarri ta han o bestela beheran brasatan e(g)osten zien.
- Eta labaren bat bazegoen horrelako txaparen bat, burdiñazko txaparen bat edo bertan beheko suaren atzekalden?
- Zean, bai, aurreko kantoneran paeta ez erretzeko ta gero azpin beste txapa koskor bat. Geo bestea, nola esaten zien? Suun bueltan brasea ez zabaltzeko hola angulo ein ta bi burni... bi burni hola ta gero angulon alkarri akoplatzen ziela hautse kanpoa ez etaatzeko, surtako hautse.
- Eta horrek ze izen zun?
- Ez dakit nola esaten zien horiri... Su-burnik uste det esaten ziela, sutan nola egoten zien. Su-burnik uste det esaten ziela.
- Oseake, sukaldea horrelakoa.
- Bai.
- Eta gero logelak edo habitazioak...
- Logelak goien. Sukaldea beheran, gero pasillo bat eta ganaruuk, ikuillue ta sukaldea beheran. Ta gero goien habitaziok goien.
- Eta ikuillua sukaldera begira? Ganauak sukaldera begira?
- Bai. Pasillo bat, sukaldeko atea ta pasillo bat ta ganau-ganbelak dana

zeakin, atekin, ean atekin, janak aurea botatzeko.

- Esan duzu ganbelak? Zer dia ganbelak?
- Bai, ganau-askak. Eta geo atea jartzen zieten hai(ri) bestela jan dana botatzen zizuen sukaldeako pasilloa. Ta ganbelak. Gero atek hairi jarri ta hala zien han.
- Ganauentzat, janaria emoteko bazenuten horrelako ontziren bat edo gero goikaldean uzten zana?
- Ez. Atzekalden zulo bat ein, ate bat ein, eta handik bota eta atzekalden, ean aurrekalden, ikuillun, askak. Ta han lotuta egoten zien. Atze-zulotio askaa bota.
- Eta horri zelan esaten zenioten "aska-aurea" edo?
- Askak, ganaun askak.
- Eta aurrekaldeari?
- Pasilloa. Aurrekaldea pasilloa.
- Hiztuna 2: Bai, aska-aurrek garai hartan...
- Aska-aurrek.
- Hiztuna 2: ... garai hartan.
- Eta habitazioetan koltxoiak-eta nolakoak ziren zure akorduan?
- A, illezkok.
- Ardi-illezkok?
- Ardi-illezkok han. Han oain´e hala egongo die. Pentsatzen det hala egongo diela, e? Ez dakit, ni ez naiz juten oain... Oain´e hala egongo die han. [...] koltxoiak illezkok.
- Eta aurreragoko koltxoiak nolakoak ziren edo? Beti ardi-illezkok ezautu dituzu zuk?
- Nik bai, beti.
- Artoarekin egindakoak ez?
- Artokin indako koltxoiak? A, bai, e?
- Artoaren...
- Bai, bai, txorrokakin, artoon buruko hostookin. Arto-txorrokea esaten dioe horri, arto-txorrokekin eindakok.
- Arto-txorrokea?
- Arto-txorrokea esaten dioe. Artaburuk eukitzen don gaiñeko lasto horri arto-txorrokea esaten dioe.
- Orduan, horrekin egindako koltxoirik ez dezu ezautu?
- Ez, nik ez det ezautu, nik illezkok ezautu dittut beti.
- Eta ehunezko erroparik edo? Bertan habitaziotan edo...?
- Ez, hola... Bueno...
- Sobrekama edo horrelakoak...?
- Han ez zeon. Han, bakizu, zuk etxe hura erre zanen danak erre zien ta gero ya... Ta ni etxea erre zanen ttikie nitzen. Hamahiru urte o... Hamahiru urte ez dakit eukiko nittun. Bai, hamahiru-hamalau urte, ze hamar urtekin jun nitzen neskame ta bi urte pasak in nittun. Geo ya aspertu nitzen etxeako ta gero etxea etorri ta etxea erre zan. Hamahiru urte ez neuzken ta nik orduko akuerdoa ez dauket hola detaille danak...

4. Baserriaren egitura; ganbarak

- **Erref:** BEA-027/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Baserriaren egitura. Ukuilua, ganbarak. Zer gordetzen zen ganbara bakoitzean. Fruta-arbolen inguruko azalpenak.

5. Gaztainak

- **Erref:** BEA-027/012
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garai batean gaztainadi handiak zeuden inguruan. Pinua etorri zenean hura sartu beharra. Gaztainadien gaitza. Gaztainak nola batzen zituzten. Gaztaina klaseak. Sarritan afaltzeko gaztaina egosiak izaten zituzten gaztaina garaian.

6. Jatekoak

- **Erref:** BEA-027/013
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Taloa, morokila; babarrunak urdaiarekin. Neskame egon zeneko ibilerak. Jai egun berezietan zer jaten zuten.</p>

7. Txerramak eta txerrikumeak

- **Erref:** BEA-027/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txerriaren garrantzia baserrian. Txerrama parek izaten zuten normalean. Txerrikumeak Ordizian saltzen zituzten plazan.

8. Urte gutxi eskolan

- **Erref:** BEA-027/017
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Eskolako kontuak. 10 urterekin eskola amaitu eta neskame joan behar izan zen. Klaseak euskaraz ematen zituzten. Baserriko lanek zuten lehentasuna, beraz, kale egin behar izaten zuten eskolan. Irakaslea Salbatoren egoten zen apopilo.</p>

9. Eskolan euskaraz

- **Erref:** BEA-027/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Erdara ikastearen inguruko kontuak. Eskolan euskaraz hitz egiten zuten Mariaren garaian.</p>

10. Oinetakoak aldatu beharra

- **Erref:** BEA-027/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea

Laburpena:

<p>Jai egunetan eskolako frontoian oinetakoak aldatu eta mezara joaten ziren. Gomazko abarkak.</p>

11. 10 urterekin neskame

- **Erref:** BEA-027/022
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

10 urterekin neskame joan zen Zeraingo baserri batera. Orduko ibilerak. Bertan zegoela, Seguran zeuden mojatara bidaltzen zuten eskolara.

12. Pinu-sartzea

- **Erref:** BEA-027/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Pinu-sartzearen inguruko azalpenak.

13. Belar lanak; segan, metak...

- **Erref:** BEA-027/024
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Baserriko lanak. Belar-ondoa. Belarra nola ebaki, bildu, metatu, eta abar. Belar-meta nola egiten zen.</p>

14. Ganadu-jatekoa

- **Erref:** BEA-027/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Belarraz gain, abereei arbia eta erremolatxa ere ematen zitzaaien jateko. Ganadu-jatekoa.

15. Gari lanketa

- **Erref:** BEA-027/026
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gariaren inguruko lanak: noiz erein, ebaki, eta abar. Garia erein aurretik lurra ondo landu behar izaten zen. Auzolanean egiten ziren lanak: gari-jotzea... Gari-jotzeko makina.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com